ataria

Etxebizitza gehigarria

Bizi tzekoa

2022-10-20
107.6 fm
Ataria.eus

BABESLEKUA

Ez dira betiko garai onenak. Pandemia atzean utzita, merkatua hankaz gora jarri duten hainbat gertakari ditugu aurrez aurre. Energetikoki eraginkorra izango den etxebizitza eroso eta atsegina eskuratzea ez da erraza, baina badira hainbat bide, eta horietako batzuk bildu ditugu datozen orrialdeetan. Etxebizitza gehigarria duzu eskuartean eta espero dugu lagungarri izatea.

TESTUAK ETA ARGAZKIAK: Imanol Garcia Landa eta Irati Saizar Artola

OSTEGUNA, 2022KO URRIAK 20
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez.
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818.publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

bai euskari zerbitzua eta lana euskaraz
Bikain
Gipuzkoako Foru Aldundia

Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi
Txolarre
berria
BERTAKO HEDABIDEAK
Tolosaldeko gizarte eragileak

IAR
ERAIKUNTZAK S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERABERRITZEAK

VELUX®

Instalatzaile baimendua

Diru laguntzez baliatu eta aurreztu

%40
VELUX leihoak aldatzerakoan

VELUX leiho eta pertsiana guztiek baldintzak betetzen dituzte. 1.000 eurotik aurrera, produktua, instalazioa eta BEZa barne.

Bazurka industrialdea, 40 · 20260 Alegia
943 651 359 · 661 633 695 · **iareraikuntzak@gmail.com**

«PRIBATUTASUNA, EROSOTASUNA ETA MALGUTASUNA HOBETU DITUGU»

Aurrez aurre edo modu digitalean hitzorduak behar bezala egin ahal izateko egokitu berri dute Laboral Kutxak Tolosako San Frantzisko pasealekuan duen bulegoa; kudeaketarako ere ordutegia zabaldu dute eta eguerdietan ez dute ixten. Gertutasuna zainduz ari dira lanean, dituzten zerbitzu guztiak bezeroen eskura modu errazean jarri nahian.

LABORAL KUTXA
Helbidea. San Frantzisko pasealekua 11, Tolosa.
Telefono zenbakia. 943 65 02 61
Webgunea. *Laboralkutxa.com*

Itxura berritua du Tolosako San Frantzisko pasealekuko 11. zenbakian dagoen Laboral Kutxaren bulegoak. Bezeroen beharrak kontuan hartuta berritu dute bulegoa, Maite Urruzola Lizarribar Tolosako bulegoko zuzendariaren esanetan, «kalitatezko arreta emateko kanala izaten jarraitzeko».

Zein aldaketa egin dituzue Tolosako bulegoan?

Egindako aldaketekin bulego berria bulego hibrido bilakatzen ari da, horrela, bezeroei kalitate hobeagoko arreta eman ahal diegu, presentzialki edo digitalean. Pribatutasuna, erosotasuna eta malgutasuna hobetu ditugu. Era berean, ekipamendu modernoez hornitu dugu, besteak beste, erreminta digitalez: bakoitzak bere ordenagailu eramangarriak ditugu, wifia daukagu, eta pantaila digitalak jarri ditugu sarreran edota bilera geletan. Bulegoak bezeroei kalitatezko arreta emateko kanala izaten jarraitu nahi du, non pertsonak pertsonekin erlazionatuko diren, izan aurrez aurre edo digitalean, baina betiere gertutasuna zainduz, entitatearen elementu bereizgarria horixe baita.

Bulego berria, bulego irekia eta gertukoa da, entitateak dituen balioekin identifikatzen dena, eta aterpea izan nahi duena: gertukoa izatea eta pribatutasuna lehenesten ditugu, mendia bezala sendoa eta sustraitua dago bere ingurunean, eta herriari erreferentzia eginez, konpromisoa, konexioa eta komunitatea indartzen ditu. Egindako berrikuntza Laboral Kutxaren apustu irmoa da, zerbitzuak eta lekukotasuna mantenduz, bezero zein lankideon erosotasuna bermatzeko.

Nola eragingo die aldaketa horiek bezeroei?

Harremanak izateko aukera erraztu zaie, nola bezeroei, hala balizko bezeroei. Gure leloarekin bat datorrela uste dugu: *Bada beste modu bat*. Bulegoan gune berriak diseinatu ditugu, elkarrizketarako eta kudeaketarako pribatutasuna hobetzen lagundu digutenak.

Zein bide dituzue bezeroarekin harremanak izateko?

Aurrez hitzordua lotzeak bezeroari zerbitzu egokituago bat eskaintzeko aukera ematen digu. Hitzordu hori elkarrizketa presentziala edo digitala izan daiteke. Bezeroak bulegora etorri beharrik izan gabe, erreminta digital bidez egin dezakegu elkarrizketa, eta modu hau geroz eta gehiago ari gara erabiltzen: Laboraleko plataformaren barruan sartu eta bideo deia egiteko aukera dago, edo idatziz ere izan daiteke elkarrizketa, txat moduan. Bi modu horietan dokumentuak partekatzeko aukera ere eskaintzen dugu, momentuan bertan bezeroarekin komentatu ahal izateko. Hori guztia ingurune seguru baten barruan, noski.

Ordutegiari dagokionez ere egin duzue aldaketaren bat.

Bezeroen kudeaketarako ordutegia zabaldu dugu. Egungo ordutegia gai operatiboetarako mantendu dugu, hau da, sarrerako leihatila eguerdira arte dugu zabalik, baina kudeaketarako 08:30etik 18:00etara zabaltzen dugu orain, eguerdietan itxi gabe.

Zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzue. Hipoteken kasuan, nola dago interes tasa gaur egun?

Egun interes tasak maila erakargarrian daude. Jakina da igo direla, baina kontuan izan behar da azkeneko urteetan oso maila ezohikoan egon direla. Bost urtez Euriborra negatiboan izan dugu, eta hori ez zen ohikoa.

Nolako hipotekak eskaintzen dituzue?

Gure hipoteken ezaugarriak erosoak eta malguak dira, hau da, bezeroen beharretara egokitzen ditugu. Esate baterako, epea egokitu daiteke bezeroen momentuko beharretara egokituz, eta ondorioz, kuota handitu edo txikitu daiteke. Bezeroak gabeziak ere eska litzake, mailegu berean bi aldiz. Horrela, denbora horretan, interesak soilik ordaindu beharko ditu, ez du amortizatuko. Tramiterik eskatzen ez duen zerbait da, eskaera egin eta justifikatu beharrik ere ez da izaten, eta jendeak baloratzen du hori.

Aseguru arloan ere baduzue eskaintza.

Oso eskaintza zabala daukagu, norbanakoentzat, familia, enpresa, negozio eta autonomoei zuzentzen dieguna. Badugu elementu bereizgarri bat: gure taldean aseguruetan bakarrik lan egiten duen kudeatzaile bat daukagu, espezialista dena. Horrek izugarri indartzen du gure zerbitzuaren kalitatea. Ez da soilik saltzera mugatzen, aholkatu ere egiten du, esaterako, bezeroak dauzkan polizak beste ikuspuntu batetik irakurtzen ditu, nola hobetu jakiteko. Horrela, bezeroaren asebetetze maila ona lortuko da. Gure aseguru etxea Lagun Aro da, eta merkatu ikerketek adierazten diguten moduan, oso ondo posizionatuta gaude. Marka propioa izateak baditu bere abantailak, izan ere, gure bezeroek finantzak eta aseguruak *app* berean eraman ditzakete, edozein kontsulta, eragiketa edo bestelako egiteko.

Baduzue beste bereizgarririk aseguruetan?

Berrikuntza bat daukagu. Bezeroak gurekin dituen aseguruak batu, eta hilabeteka bere prima ordaindu dezake. Esaterako, hilabete berean tokatuko zaio etxearen eta autoaren asegurua ordaintzea, bada, multiaseguru kontu bat ireki, aseguru guztiak biltzen dituena, eta 10 hilabetetan ordaindu dezake prima, inongo kostu eta interesik gabe.

IURRAMENDI BIZIGUNEA

sukia

Zure etxean zaude **Estás en tu casa**

943 30 29 12

www.sukia.com

ERAIKUNTZA LANETARAKO APROPOSA

Asegurogintza aseguru artekaritzak Ordizian eta Donostian ditu bulegoak. **Ezagutza zabala du eraikuntza lanetarako aseguruetan** eta oso lagungarria izan daiteke etxebizitza promotore eta enterpresatan. Izan ere, eraikuntza prozesuan behar diren aseguruak kudeatzen laguntzen dute. «Lan bakoitzak eskatzen duen babes beharra aztertuko dugu, merkatuan dauden aseguru aukerak baliatuz», esan dute.

Eskaintza zabala dute eta horietako bat da **aseguru dezenala** deiturikoa. «OCT zerbitzua ere kudeatu dezakegu. Eta eraikuntza lanak bukatu bezain pronto, erregistroan aurkeztu beharreko ziurtagiria prestatzen dugu».

Eskaintza zabal horren adibide da ere, **hiru urteko bermea** eskaintzen dutela, eraberritze lanetarako bereziki pentsatua. Horiek horrela, LOE legeak urte beterako edo hiru urterako agintzen dituen bermeak babestu ditzakete.

Erantzukizun zibila da eraikitze lanean kontuan hartu beharreko beste alderdietako bat eta Asegurogintza aseguru artekaritzan lan bakar baterako edo urte guztiko obra guztiak estaltzeko aukera eskaintzen dute. Poliza ireki bat egiten dute horretarako. Dena den aipatutakoak ez dira eskaintzen dituzten aukera bakarrak eta **abalak egiteko edo istripu aseguruak kontratatzeko aukera** eskaintzen dute. Zentzu horretan **arrisku oro babesteko eraikuntza asegurua** aipatu dute. «Obraren garapenean eragin dezaketen kalteak babestu daitezke, bai kaltearen sorburua proiektuan dagoenean eta baita lanaren egikaritzean dagoenean ere».

ASEGUROGINTZA ASEGURU ARTEKARITZA
Helbidea. Aita Barandiaran, 7, Ordizia.
Telefono zenbakia. 943 88 12 40.
Posta elektronikoa. *asegurogintza@aseguroak.net.*
Webgunea. *Aseguroak.net*

Txulo Elektrizitatea
INSTALAZIOAK - MATERIAL ELEKTRIKOA - ILUMINAZIOA
Ramón Amonarriz
629 41 86 01 ▪ 943 67 03 35 ▪ electricidadtxulo@gmail.com ▪ TOLOSA

KALITATE ETA LEKU EZIN HOBEAK

Otegui Eraikuntzak enpresak kalitate handiko eta leku ederrean dauden bi etxebizitza ditu salgai Leaburu herrian. Bentaburu izeneko promozioan espazio handia duten bi etxebizitza eroso daude eta ia kontsumo energetiko gabekoak dira.

OTEGUI ERAIKUNTZAK S.L.
Helbidea. Bizkaia kalea 2, baxua. Tolosa.
Telefono zenbakiak. 943 672 172 eta 608 772 801.
Posta elektronikoa. *otegui@oteguieraikuntzak.com*
Webgunea. *Oteguieraikuntzak.com*

Gustura bizitzeko espazio bat eskaintzea da etxebizitza baten helburu nagusia. Otegui Eraikuntzak enpresak aukera hori eskaintzen du Leaburun. Bi etxebizitza daude salgai Bentaburu izeneko promozioan. Kokagunea eta kalitatea dira bere ezaugarri nagusiak: kalitate oso altuko etxebizitzak dira eta leku ezin hobean daude.

Leaburu herri txiki bat da, naturaz inguratuta, eta oso ondo komunikatuta dagoena. N-1 autobiara hiru minututan iritsi daiteke. Harrigarria badirudi ere, Tolosako San Frantzisko pasealekutik denbora gehiago behar da errepide nagusi horretara iristeko.

Bentaburuko etxebizitzetan bizi dena, naturan biziko da, herri ezin lasaiagoan. Leku irekia eta eguzkitsua da. Beste edozein herri txiki bezala, zerbitzu aldetik ez bada osatuena ere, hainbat zerbitzu ditu, eta oso gertu dago Tolosatik beste edozein behar asetzeko. Lekuaren eta zerbitzuen arteko proportzioari begiratuz gero, Leaburu irabazten ateratzen da ezbairik gabe.

Etxebizitzak eraikitzen ari dira eta epe laburrean bukatuko dituzte. Espazio handiko etxebizitzak dira: 176 metro karratukoa da horietako bat eta bestea 156 metro karratukoa. Bakoitzak du bere lorategia ondoan. Garajea izateaz gain, aparkaleku pribatuak ere izango dituzte, eta etxebizitzen kanpoko eremuan ere aparkatzeko aukera ugari dago. Erosotasun gehigarri hori dute, beraz, etxebizitzek.

Etxe bakoitzak lau gela eta hiru bainugela ditu. Gela batek bere bainugela du, *suite* moduko batean bihurtuz. Behe solairuan gela bat egongo da eta beste hirurak lehen solairuan. Behe solairuan sukalde-jangela eta egongela daude. Bere diseinu bereziarengatik etxebizitza guztiz argitsuak izango dira, espazio zabalarekin eta dekorazio zaindu eta modernoarekin.

Etxebizitza hauen ezaugarri nabarmenetako bat *Passive House* (etxe pasiboa) irizpideak jarraituz eraikiko dela izango da. Fatxadetan, estalkian eta behe solairuko forjaketan isolamendua izango du, berotasunaren galera murriztuz eta, beraz, eraikinaren kontsumoa gutxituz. Etxebizitzak bere barruko tenperatura egonkor mantenduko du, kanpoko hozberoaren eraginik jasan gabe.

Izan ere, etxebizitza bat erosterakoan, kontuan izan behar da gero zer kontsumo energetikoa izango duen, eta horrek zenbat diru suposatuko duen. Horregatik, Otegui Eraikuntzak-etik garrantzia berezia eman diote proiektu honetan kalitate handiko materialak erabili eta eraikitzeko moduak bermatzeari. Batetik, bizi kalitatean duen eragin zuzenarengatik, eta, bestetik, etorkizunera begira horrek suposatzen duen aurrezkiarengatik.

Bentaburu promozioak eskaintzen duen beste ezaugarri interesgarri bat pertsonalizatzeko aukera da. Guztiz eraiki aurretik norbaitek erosten badu, aukera izango du etxebizitzaren espazioaren banaketan aldaketak egiteko.

Aukera zabala

Otegui Eraikuntzak enpresak 30 urte baino gehiago daramatza etxebizitzen promozioan eta eraikuntzan. Egiteko gaitasunari, espiritu berritzailea eta sortzailea gehitzen diote. Leaburuko promozioaz gain, Otegui Eraikuntzak beste hainbat promozio ditu eskualdean zein eskualdetik gertu. Berrobin dagoeneko eraikita dauden etxebizitzak ditu salgai. Bestalde, Tolosan, Ezkion eta Ordizian promozioak dituzte martxan. Ez zalantzarik izan Otegui Eraikuntzakekin edo higiezin-agentziekin harremanetan jarri eta bere eskaintza zabalaren berri jasotzeko.

KUTXABANK HIPOTEKAK

KUTXABANKEN, HIPOTEKEN ERDIAK BEZEROEN GOMENDIOEN BIDEZ SINATZEN DIRA.

SARTU "KUTXABANK HIPOTEKAK" WHATSAPP-EKO PROFILEAN QR-A ESKANEATUTA EDO 688 86 23 98 ZENBAKIRA MEZU BAT BIDALITA

kutxabank
HEMENDIK.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.